

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2014ko URTARRILAREN 16an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2014ko urtarrilaren 16an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Imanol Aranzabal Lasa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Aritz Usandizaga Larrañaga
Karlos Irazu Muñoa


Bere ezin etorria azaltzen du: Jon Tejeria Otermin

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udaltzarretako akta onestu, hala bada gokia:**
 - 2013ko abenduaren 5ean egindako ohiko bilkura
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **M.C.G. eta F.A. jaun/andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
4. **Herri Ostatuko kudeaketaren kontratu luzapena, hala bada.**
5. **Espetxe-zigorrak Larraulgo Udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamenduaren behin betiko onespina, hala bada.**
6. **Erniozaleak Kultur Elkartea eta Larraulgo Udalaren arteko hitzarmenaren onespina, hala bada, Ernio inguruan dauden zortzi herrien artean bi urtez behin egiten den ibilaldiaren antolakuntzarako.**
7. **Larraulgo Guraso Elkartea eta Larraulgo Udalaren arteko hitzarmenaren onespina, hala bada, Eskolan egingo diren obren finantzaketarako.**
8. **Tolosaldeko Mankomunitateak aurkezturiko idatziaren berri ematea, hala bada.**
9. **Argiteri publikoa aldatzeko eskaturiko diru-laguntzen berri eman, hala bada.**
10. **Gipuzkoako Foru Aldundiak eratu zuen kontratazio zentralaren kide izateko bertara atxikitze akordioa onestea, hala bada.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

11. Fakturak eta ordainketak.
12. Beste batzuk.
13. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2013 urteko abenduaren 5eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

34/2013 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 17koa, Tolosaldeko komunikazio taldeari diru-laguntza ematea, ebazten duena.

35/2013 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 17koa, Ostarbi eraikuntzari Larraulgo Kultur etxe aurrean estalpe bat egiteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

36/2013 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 19koa, Hirilurren baio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa onestea, ebazten duena.


37/2013 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 20koa, langileen eskaera onestea, ebazten duena.

38/2013 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 31koa, 3/2013 kreditu aldaketarako espidenteari hasiera ematea, ebazten duena.

01/2014 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Larraulgo eskolan hobekuntza lanak, komunen moldaketa izeneko memoria eta aurrekontua onestea, eta diru-laguntza eskaera egitea, ebazten duena.

02/2014 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Larraulgo eskolan hobekuntza lanak, aterpea izeneko memoria eta aurrekontua onestea, eta diru-laguntza eskaera egitea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARREN PUNTUA

M.C.G. ETA F.A. JAUN/ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik F.A. eta M.C.G. jaun/andreak aurkezturiko errekurtsua non ondorengo dioen:

“...que venimos a interponer recurso contra el acto administrativo emanado de este ayuntamiento donde se realiza el nombramiento del trabajador J.M.M. Que se realiza el acuerdo del mismo por no considerarlo justo.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, Karlos Irazu zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoaz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- M.C.G. eta F.A. jaun/andreak jarritako errekurtsua ez onartu. 2013ko azaroaren 7an egindako Udalbatzarrean J.M.M. jauna kontratatzeke erabakia berrestea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri M.C.G. eta F.A. jaun/andreari ematea.

LAUGARREN PUNTUA


HERRI OSTATUKO KUDEAKETAREN KONTRATU LUZAPENA, HALA BADA.

Ikusirik 2012ko uztailaren 5ean ospatutako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa Y. P. andreari eman zitzaiola, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.

Ikusirik 2013ko urtarrilaren 24an egindako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa Y. P. andreari urte betez luzatu zitzaiola, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.

Ikusirik, Y.P. andreak Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketan, 2013ko urtarrilaren 24an Larraulgo Udalarekin sinatutako kontratuan jasotzen ziren baldintzak, ordutegia bereziki, ez duela bete. Honegatik, egingo duen ordutegi bat eskatzen zaio, ondorengo izanik:

*“Astelehena: 10.00etatik 16.00ra
Asteartea: 10.00etatik 20.30etara
Asteazkena: 10.00etatik 20.30etara
Osteguna: 10.00etatik 20.30etara
Ostirala: 10.00etatik 21.00etara*



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larunbata: 10.00etatik 23.00etara

Igandea: 10.00etatik 20.00etara

Afariak eta mus txapelketak daudenean, herri ostatua hauek amaitu arte irekita mantenduko delarik (ostiraletan eta larunbatetan).”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Y. P. andreak aurkezturiko Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko egingo duen ordutegia onestea, ondorengo salbuespenarekin, ostiraletako ordutegia goizeko 10.00etatik iluntzeko 23.00arte izango da. Ostiraletan eta larunbatetan afari zerbitzua eskaini behar duelako.

Beraz, bete beharko duen ordutegia ondorengo izango da:

Astelehena: 10.00etatik 16.00ra

Asteartea: 10.00etatik 20.30etara

Asteazkena: 10.00etatik 20.30etara

Osteguna: 10.00etatik 20.30etara

Ostirala: 10.00etatik 23.00etara

Larunbata: 10.00etatik 23.00etara

Igandea: 10.00etatik 20.00etara

Afariak eta mus txapelketak daudenean, herri ostatua hauek amaitu arte irekita mantenduko delarik (ostiraletan eta larunbatetan).

BIGARRENA: Y.P. andreari jakinarazi, goian onarturiko ordutegia, jendeak argi ikusi dezakeen leku batean jarrita izan beharko duela.


HIRUGARRENA: Y.P. andreari Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua sei hilabetez luzatzea. Epe hau bukatu ondoren, Udalak aztertuko ditu, onarturiko baldintza hauek betetzen direla, ondoren dagokion luzapena emango duelarik.

LAUGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmentzea, kontratu luzapena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Y.P. andreari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

ESPETXE ZIGORRAK LARRAULGO UDALAREN ALDE LAN EGINEZ ORDEZKATZEKO ERREGELAMENDUAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Espetxe-zigorrak Larraulgo Udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamendua 2013ko azaroaren 7an egindako Udalbatzarrean hasierako onspena eman zitzaiola.

Ikusirik 2013ko abenduaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan aipaturiko espedientea jendaurrean jarri zela, hogeita hamar egunetako epean, espedientea aztertu eta bidezko alegazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Ikusirik goian aipaturiko epean ez dela inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Espetxe-zigorrak Larraulgo udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamendua behin betikoz onestea.

BIGARRENA: Espetxe-zigorrak Larraulgo udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamenduaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki-Administrazioaren Araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatutako bete dadin.

SEIGARREN PUNTUA


ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEA ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONSPENA, HALA BADA, ERNIO INGURUAN DAUDEN ZORTZI HERRIEN ARTEAN BI URTEZ BEHIN EGITEN DEN IBILALDIAREN ANTOLAKUNTZARAKO

Ikusirik Erniozaleak Kultur Elkarteak igorritako hitzarmenaren zirriborroa, Aiako Udalak, Albizturgo Udalak, Alkizako Udalak, Asteasuko Udalak, Bidegoiango Udalak, Errezilgo Udalak, Hernialdeko Udalak eta Larraulgo Udalak onartu dezaten, non Ernio inguruan dauden zortzi herrien artean bi urtez behin egiten den ibilaldiaren antolaketa arautzen den.

Ikusirik aipaturiko hitzarmena 14 urteetarako iraupena izango duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Erniozaleak Kultur Elkartea, Aiako Udalak, Albizturgo Udalak, Alkizako Udalak, Asteasuko Udalak, Bidegoiango Udalak, Errezilgo Udalak, Hernialdeko Udalak eta Larraulgo Udalaren arteko hitzarmenaren onespena, Ernio inguruan dauden zortzi herrien artean bi urtez behin egiten den ibilaldiaren antolaketa arautzeko.

BIGARRENA: Xabier Mujika Pagola Alkate-Lehendakariari, ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Erniozaleak Kultur Elkarteari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

LARRAULGO GURASO ELKARTEA ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA, ESKOLAN EGINGO DIREN OBREN FINANTZAKETARAKO

Ikusirik Murgil Guraso Elkartek igorritako hitzarmenaren zirriborroa, non Larraulgo eskolan egingo diren obren finantzaketa gastuetan udaletxeari laguntza eskaintzeko arauak finkatzen diren. Akta honi atxikituko zaio.

Ikusirik aipaturiko hitzarmena Murgil Guraso Elkartek 2012ko eskola txikien festan sortutako diru-etekinak agortutakoan bukatuko dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Murgil Guraso Elkartea eta Larraulgo Udalaren arteko hitzarmena onestu, non Larraulgo eskolan burutuko diren obrak finantzatzeko arauak finkatzen diren.

BIGARRENA: Xabier Mujika Pagola Alkate-Lehendakariari, ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.


HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Murgil Guraso Elkarteari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAK AURKEZTURIKO IDATZIAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeako Mankomunitateak igorritako idatzian dioena:

“Honen bitartez Tolosaldeko Mankomunitateko Lehendakariak, 2013ko abenduaren 23an, 20131223.058 zenbakiko ebazpenaren bidez, hurrengo erabaki hau hartu duela jakinarazten dizut:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2013ko apirilaren 22an Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2013 ekitaldirako aurrekontua onartu zuen.

Besteak beste hobari mota hauek aplikatzea onartu zuen:

-44€ autokonpostajea egiten duten familiako. Urte bukaeran aplikatu nahi da, bai ezarpen berrietan eta baita lehenagokoen jarraipenetan ere.

-10€ biztanleko, Elduain, Orendain eta Orexan. Azken herri honen ordezkariak hartzen du hitza esanez hiru herri hauetan, urte hasieratik, Zero Zabor politika aplikatzen dutelako arrazoitzen dela hobari berezi honen ezarpena.

Egun, Spora Ingurumen Zerbitzuak esleitzailak amaitu du Tolosaldeko Mankomunitatean Etxeko konpostajearen plangintza, jarraipena eta ezerketa kanpainaren zerbitzua (I. Fasea).

Bestalde udal batzuk udalerrian sortutako materia organikoaren kudeaketa egiten dute pilan egindako konpostajearen bitartez.

Hori horrela, konpostajearen bitartez kudeatzen den materia organikoaren familia-banaketa herriz-herri ebazpen honen eranskinean agertzen dena da.

Honen aurrean

ERABAKITZEN DUT

Lehenik.- 44€ko hobaria aplikatzea eranskineko familia kopuruaren arabera, 2013ko aurrekontuko 1 430.442.00.02 partidaren gain.

Bigarren.- 10€ biztanleko hobaria aplikatzea Elduain, Orendain eta Orexan, 2013ko aurrekontuko 1 430.442.00.01 partidaren gain.


Hirugarren.- Erabaki honen berri kontuhartzaileari ematea”

Ikusirik, idatzi honi atxikita eranskina agertzen dela, non Larraulgo Udalarari 352 eurotako hobari bat aplikatzen diguten.

Batzarkideak, aipatutako guztiaren berri hartzen dute.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

ARGITERI PUBLIKOA ALDATZEKO ESKATURIKO DIRU-LAGUNTZAREN BERRI EMATEA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Larraulgo Udalak 2013ko azaroaren 28an, 2013ko EEE/EVEREN laguntza programa udaletxeetan energia eraginkortasunerako diru-laguntza eskaera egin zuela. 48.067 eurotako aurrekontu bat aurkeztuaz.

Ikusirik EEE-ko zuzendari nagusiaren ebazpena, non 16.823 eurotako diru-laguntza esleitzen zaion Larraulgo Udalari argiteri publikoa berritzeko.

Ikusirik Larraulgo Udalak 2013ko urriaren batean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentura diru-laguntza eskaera egin zuela, tokiko energiaren aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa bultzatzeko diru laguntzaren 2013ko deialdiaren babesean. 48.067 eurotako aurrekontu bat aurkeztuaz.

Ikusirik 2013ko abenduaren 12ko, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako departamentuko foru diputatuaren ebazpena, non 12.257,16 eurotako diru-laguntza esleitzen zaion Larraulgo Udalari argiteri publikoa berritzeko.

Batzarkideak, aipatutako guztiaren berri hartzen dute.

HAMARGARREN PUNTUA PUNTUA


GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ERATU ZUEN KONTRATAZIO ZENTRALAREN KIDE IZATEKO BERTARA ATXIKITZEKO AKORDIOA ONESTE, HALA BADA

Otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuz Gipuzkoako Foru Diputazioaren Foru kontratazioen Zentrala sortu da, kontrataziorako Laguntza órgano bat izango dena, hain zuzen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateetako kontratazio organoei laguntzeko, aipatu entitateak kontratazio sistema honi atxikitzen zaizkion neurrian.

Kontratazioen zentralak urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen 187 artikulua eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera erregulatzen dira eta azaroaren 14ko Sektore Publikoko kontratuen Legearen 3/2011 Testu bateratuaren 203 artikulua eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Toki Administrazioaren eremuan, 188 artikuluan diputazioei kontratazio-zentralak sortzeko aukera ematen die, 189. Artikuluan aurreikusten du udal erakundeak eta sektore publikoko beste entitate batzuk kontratazio sistema horietara atxiki daitezkeela, komeni diren akordio edo hitzarmenak eginda.

Zentralizazioaren helburua entitate publikoen kontratazio jardueran eraginkortasun handiagoa lortzea da: alde batetik, kudeaketaren ikuspuntutik, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko tramitazio administratiboa arintzen eta sinplifikatzen duelako; eta, beste aldetik, ekonomiaren ikuspuntutik, baldintza ekonomiko hobekak lor daitezkeelako, eta, horri esker, gastu publikoa txikitu.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Atxikipen honek ez dakar berekin kontratazio guztiak Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez egin beharrik; Udal honen esku dago sistema hau ondasun, zerbitzu edo hornidura guztietarako edo batzuetarako bakarrik erabili erabakitzea.

Aurreko guzia ikusita, Udal batzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari-Foru Kontratazioen Zentralari atxikitzen da.


BIGARRENA: Larraulgo Udal hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari-Foru kontratazioen Zentralari atxikitzeko hitzarmena onartzea.

HIRUGARRENA: Alkatea behar bezala ahalmentzea, Udal honen izenean eta ordezkaritzan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dagokion hitzarmena sinatu dezan.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

GAZTEZULO	20,00
ELECTRICIDAD ZIZURKIL S.L.	198,88
SASMAK	76,76
AKETEGI	34,40
KOPIDIN	81,19
LIDOINSA	896,61
BERRI LANTEGIA	127,27
TOLOSAKO UDALA	640,00
LIDOINSA	861,22
MANPEL	141,64
AITZOL	81,20
AITZOL	64,96
AITZOL	40,60
BULEGOAK	2.399,64
BULEGOAK	148,94
EBA ERKIZIA	328,51
EBA ERKIZIA	447,89
BABESA SUZAI	151,73
BERRI LANTEGIA	197,67
ASCENSOREN ULAHI	378,16
GIPUZKOAKO URAK	3.615,19



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GIPUZKOAKO URAK	410,03
GIPUZKOAKO URAK	3.864,16
GAS NATURAL FENOSA	191,00
GAS NATURAL FENOSA	302,14
GAS NATURAL FENOSA	149,04
GAS NATURAL FENOSA	354,71
GAS NATURAL FENOSA	62,51
GAS NATURAL FENOSA	217,27
GAS NATURAL FENOSA	424,02
GAS NATURAL FENOSA	461,36
GAS NATURAL FENOSA	65,56
GAS NATURAL FENOSA	156,30
REPSOL	223,00
REPSOL	662,90
MOVISTAR	79,63
MOVISTAR	19,34
MOVISTAR	133,05
MOVISTAR	19,00
MOVISTAR	65,77

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **18.793,25** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.


HAMABIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

12.1. Kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 3 zk.ko espedientearen onspena.

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
130.510.00.01	Laboral finkoen ordainketak:Brigada	450,56
131.510.00.01	Aldarteko laboralen ordainketak	4.021,03
160.510.00.01	Gizarte Segurantzza. Pertsonal laboral	109,13
160.121.00.03	Mutualitateak	3.580,65
162.120.00.01	Funtzionarioen prestakuntzak	40,36
163.111.00.05	Goi-karguen bizi aseguruak	671,89
221.120.00.01	Argi Hornidura: Zerbitzu orokorrak	394,98
221.433.00.01	Argi Hornidura: Argitegi publikoa	926,86
224.120.00.01	Aseguru Primak	293,88
227.120.00.01	Garbiketa Zerbitzua	3.544,96
230.120.00.01	Pertsonalaren dieta, lokomozio ...	11,56
231.111.00.01	Goi-karguen dieeta, lokomozio	20,10
421.120.00.01	Mankomunitate eta Kontsortzioei	860,86
422.120.00.01	Beste Entitateei ekarpenak	1.981,23
480.120.00.01	Partikularrei aportazioak	324,00
601.510.00.01	Azpiegitura eta urbanizazioak	525,55
683.120.00.00	Inbertsioak: Ondare Ondasunak	6.265,58
GEHIKUNTZAK GUZTIRA ...		24.023,18

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

	<u>SARRERA HANDIAGOAK</u>	
2- 720.000.00.01	Diputazioa: Enplegua sortzeko dirul.	12.000,00
2- 720.000.00.06	Diputazioa: Plan Orokorra erredakzioa	9.000,00
	<u>GERAKINA</u>	
2- 870.000.00.00	Gerakina	3.023,18
	GUZTIRA	24.023,18

BIGARRENA: Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.50 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA